

JOKABIDE-KODE KORPORATIBOA



EROSKI Koop.E.ko Kontseilu Errektoreak 2022ko irailaren 29an onartua

ZER DA ETA ZERGATIK?

1. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Eroski Taldearen Jokabide Kode Korporatiboak (aurrerantzean Kodea edo Jokabide Kodea) bere administratzaile eta langileen (aurrerantzean "pertsonak") eguneroko lana bideratu behar duten jokabide-jarraibideak laburbiltzea du helburu, haien

erantzukizuna, erakundeko posizioa, lan-kontratu mota edo jarduerak egiten dituzten lekua edozein dela ere.

Langiletzat jotzen dira Eroski Taldean funtzioak betetzen dituzten pertsona guztiak; hain zuzen ere Eroski Taldea osatzen dute, alde batetik, kooperatiba matrizeak (aurrerantzean EROSKI Koop.E.), eta, bestetik, EROSKI Koop.E.k kontrolatutako sozietate edo erakunde guztiak –kooperatibak nahiz beste edozein izaera juridikotakoak– edo Eroski Koop.E.k zuzenean nahiz zeharka boto-eskubideen % 50 baino gehiago duen horiek.

Ondore horietarako, Jokabide Kode honek Eroski Fundazioari eta beraren patronoei ere eragingo die.

Horrela, Eroski Taldearen Jokabide Kode Korporatiboak pertsonengandik espero diren jokabideak zehazten ditu izaera etikoko gaietan, erakundeak arlo horretan dituen konpromisoekin edo araudi aplikagarriarekin zerikusia dutenetan, eta beren jarduerak eta ezaugarriak kontuan hartuta garrantzitsuenak direneta.

Kodeak jasotako printzipio eta konpromiso nagusiak identifikatzen ditu, eta erakundeak jokabide irregularrak prebenitu, detektatu eta desagerrarazteko etikaren eta integritatearen arloan aplikatutako behar adinako arretaren printzipioa adierazten du, jokabide horien izaera edozein dela ere. Kodea osatzen da erakundean dauden arau edo politikekin, baina arau edo politika horiek ezin dira kode honetan ezarritako printzipio baten kontrakoak izan.

2. IRISMENA, ONARPENA ETA BETETZEA

Jokabide Kodean jasotako jokabide-printzipioak nahitaez bete beharko dituzte Eroski Taldean beren funtzioak betetzen dituzten administratzaileek eta langileek, zeina osatzen baitute EROSKI Koop.E.k eta EROSKI Koop.E.k kontrolatzen dituen sozietate nahiz antolakunde, kooperatiba edo beste edozein izaera juridikotako edozein sozietate, erakunde edo kooperatibek edo EROSKI Koop.E.k boto-eskubideen % 50 baino gehiago zuzenean edo zeharka dituenak.

Eroski Taldeak bere administratzaile eta langileengandik espero du Kode honetan eta Kode honek oinarri dituen arauetan jasotako jokabide-printzipioekin bat datorren jokabidea izatea. Beraz, Kode honetan jasotako jokabide-printzipioak betetzea Eroski Taldeko pertsona guztiek hartutako betebeharren parte da, eta horien jarduna ebaluatu ahal izango da Kodea betetzeari dagokionez.

Erakundeak, bestalde, beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu pertsona guztien eskura haien funtzio profesionalak betetzeko araudi eta legeria garrantzitsuenak ezagutu eta ulertu ahal izateko, bai eta Kode honetan jasotako jokabide-printzipioak ere.

Eroski Taldeko administratzaile eta langile bakar bat ere ez dago baimenduta, erakundean duen posizioa edozein dela ere, Jokabide Kode honetan ezarritakoa urratzeko edo langile bati urra dezala eskatzeko. Era berean, ezin izango da praktika txar bat justifikatu nagusi baten adierazpen batean edo Jokabide Kodea ez ezagutzean oinarrituta.

Kode honetan xedatutakoa urratzen dutenek komunikazioa jaso ahal izango dute, Salaketa Kanalaren Erregelamenduan Auditoria eta Betetze Batzordeak ezarritako jakinarazpen- eta kontsulta-prozeduraren arabera; prozedura hori Kode honen 6. apartatuan deskribatutakoa da, eta, horrenbestez, erakundean indarrean dagoen diziiplina-araubidea aplikatu ahal izango zaie.

Jokabide Kode honek eragindako pertsona guztiengandik espero da detektatzen dituzten jokabide irregularren berri ematea, baita hirugarren batzuek eta, bereziki, hornitzaileek, kontratistek, bestelako bazkide komertzialek edo kanpoko kolaboratzaileek jokabide irregularrak dituztela detektatzen denean ere.

3. ERANTZUKIZUN PARTEKATUA: ERAKUNDEA ETA PERTSONAK

Eroski Taldeko pertsona guztiak dira Kodean jasotako jokabide-printzipioak ezagutzeko, ulertzeko eta betetzeko erantzuleak. Administrazioko, zuzendaritzako edo taldeak kudeatzeko ardura dutenek erantzukizun gehigarriak dituzte.

Eroski Taldeko pertsona guztiek hau egin behar dute:

- **Ezagutu, ulertu eta bete** Jokabide Kodean jasotako **jokabide-konpromisoak**, baita beren lanpostuari aplikatu beharreko arauak eta prozedurak ere.
- **Kodea ezagutu, ulertu eta betetzen lagundu.**
- **Zalantzarik izanez gero, laguntza eskatu**, horretarako ezarritako kanalen bidez.
- Erakundeak ezarritako **barne-kontroleko sistemen funtzionamendu egokian** laguntzea, Jokabide Kodea eta jokabideari buruzko erakundearen gainerako barne-arauak betetzen direla zaintzeko.

Administrazioko, zuzendaritzako edo taldeak kudeatzeko erantzukizunak dituzten Eroski Taldeko pertsonak erantzukizun gehigarri batzuk dituzte Jokabide Kodeari dagokionez:

- **Beren erantzukizun-esparruan**, Jokabide Kodea eta haren oinarri diren arauak eta prozedurak **ezagutzen, ulertzen eta betetzen laguntzea**.
- Erakundeak **nahi den tonu etikoa sortzen laguntzea**, erakundeak espero diren jokabideak ezagut ditzan lagunduz.
- Jokabide Kodean aurreikusitako gaietan **fede onez jokabide irregularrak jakinarazten dituztenei laguntza ematea**, konfidentzialtasunari eutsiz eta izan daitezkeen errepresalietatik babestuz.
- Eroski Taldeko langile guztientzat **eredugarri eta erreferente izango den jokabide profesionala izatea**. Jarraitu beharreko adibidea izan behar du haien jokabideak.

PRINTZPIOAK

4. JOKABIDE-PRINTZPIOAK

Zintzotasuna eta integritatea dira Eroski Taldea presente dagoen harremanen printzipio gidariak. Horregatik, Taldeko administratzaile eta langileen eguneroko lana bideratzen duten jokabide-jarraibideak jasotzen ditu Kodeak.

Aurrekoaren arabera, Eroski Taldeko pertsona guztiek beren erantzukizun profesionalak garatu behar dituzte behean laburbiltzen diren jokabide-printzipioen arabera.

LEGEAK BETETZEA

Eroski Taldeko pertsonak zorrotz bete behar dituzte erakundeari eta beren jardura propioari aplikatzekoak zaizkien **barne- eta kanpo-arauak**.

Konpromiso hori da erakundea osatzen duten pertsona guztiengandik espero den jokabide etikoaren oinarria.

Eroski Taldeko administratzaile eta langile guztiek beren jardura profesionalari buruzko legeak eta arauak ezagutu eta ulertu behar dituzte, eta, zalantzarik izanez gero, aholkularitza eskatu behar diete gai desberdinetan espezializatutako erakundeko arloei.

Printzipio horren barruan sartzen da agintari eskudunekin lankidetzan aritzea, hala behar denean.

- Bereziki, Eroski Taldearen jarduerak giza eskubideak eta askatasun publikoak errespetatuz egiten dira, nazioartean onartutako lege eta praktikekin bat etorritik. Erakundeak erreferentziatzen hartzen dituen estandarrak dira, besteak beste, Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen (aurrerantzean LANE) oinarritzko hitzarmenak lan-praktikei dagokienez.
- Eroski Taldeak **LANEren oinarritzko hitzarmenetan** jasotako lan-xedapenak betetzearen alde egiten du, eta ez du onartzen printzipio horien aurkako praktikarik. Ez eta bere hornitzaile, kontratista edo, oro har, enpresa laguntzaileetan ez.

ZINTZOTASUNA, INTEGRITATEA ETA LEIALTASUNA ERAKUNDEARI

Eroski Taldean egindako enpresa-harreman eta -transakzio guztiak Eroski Taldearen **ospea eta sinesgarritasuna kontuan hartuta** egin behar dira. Zintzotasunak eta integritateak erakundearen harreman guztietan egon behar dute, bai bere langileen artean, bai bere bezeroen, hornitzaileen, lehiakideen eta agintarien artean.

Bereziki, eta **Administrazio Publikoei dagokienez, Eroski Taldeko langileek ziurtatuko dute Administrazio horiei eskatutako edo haiengandik jasotako laguntzak behar bezala erabiltzen direla** eta eskaera horiek gardentasun-irizpideei jarraitzen dietela, laguntzak lortzeko baldintzak faltsutzea edo erabilera desegokia ematea saihestuz.

Ez egin kalterik eta ez onartu kalte egiterik Eroskiren edo Eroski Taldearen izen onari

Eroski Taldeko pertsonak erakundearekiko leialtasunezko jokabidea izan behar dute. Alde horretatik, egoera guztietan jokabide etikoa izan behar dute, eta **Eroski Taldearen** interesei edo **izen onari** kalte egin liezaieketen jarduerak saihestu behar dituzte. Era berean, ez dute hirugarrenekin elkarlanean jardungo legea urra dezaketen jardueretan edo hirugarrenek erakundean duten konfiantzari kalte egin dezaketenetan.

Eroski Taldeko pertsonak zainduko dute hornitzaileek, kontratistek, bazkide komertzialek edo kanpoko kolaboratzaileek eta, oro har, enpresa laguntzaileek erakundearen **irudia eta ospea** errespetatzea.

Jarduera finantzarioak, enpresarialak edo partikularrak, Eroski Taldearen interesekin bat ez datozenak, norberaren edo lehiakideen mesedetan. Interes-gatazka.

Eroski Taldearen eta bere pertsonen arteko harremanak interes komunitatik sortutako leialtasunean oinarritu behar du. Alde horretatik, erakundeak errespetatzen du administratzaileek eta langileek beste gizarte-, finantza- edo enpresa-jarduera batzuetan edo kargu publikoetan jardutea, betiere barne-araudiak aurkakoa xedatzen ez badu, jarduera horiek legezkoak badira eta Eroski Taldeko haien erantzukizunekin edo erakundearen interesekin lehian ez badaude edo interes-gatazkarik sortzen ez badute.

Nolanahi ere, Eroski Taldeko pertsonak **aldez aurretik jakinarazi beharko dute**, horretarako ezarritako kanalen bidez, Eroski Taldean dituzten erantzukizunen jardura gehigarriak garatzeko asmoa, eta ezingo dituzte beren onurarako baliatu erakundeko langile gisa jakin dituzten aukerak.

Era berean, Eroski Taldeko pertsonak ezingo dute parte hartu beren lanean edo erakundearen irudian, pertzepzio publikoan eta ospean eragin negatiboa izan dezakeen ezein motatako jardueretan.

Ezein langilek ez dio zerbitzurik eskainiko erakundeko lehiakide bati kontsultore, kontseilari, zuzendari, langile edo aholkulari gisa, Eroski Taldeak eskatuta edo haren baimenarekin eskain daitezkeen zerbitzuak izan ezik.

Interes-gatazkak sortzen dira langileen interesak Eroski Taldeko interesekin lerrokatuta ez daudenean, beren betebeharrak eragiten dietenean edo esleituta dituzten erantzukizunak betetzeaz bestelako motibazioengatik jardutera eramaten dituztenean.

Eroski Taldeko pertsonak saihestu beharko dituzte beren interes pertsonalen eta erakundearen interesen artean gatazka sor dezaketen egoerak. Halaber, ezin izango dute erakundea ordezkatu, ez erabakietan esku hartu edo eragin –zuzenean nahiz zeharka– erabaki horietan beraiek edo hurbileko hirugarren batek interes pertsonalen bat badu.

Eroski Taldeko pertsona guztiek dute erakundeari interes-gatazkaren bat ondorioztat izan dezaketen inguruabarrak komunikatzeko betebeharra.

Erakundearen aktiboan erabilera

Eroski Taldeko pertsonak beren betebeharrak profesionalak garatzeko behar dituzten baliabideak dituzte. Eroski Taldeak bere administratzaile eta langileen eskura jartzen dituen aktiboak barnean hartzen dituzte –baina ez dira horietara mugatzen– honako hauek: ondasun fisikoak, informazio konfidentziala edo jabari pribatukoa eta jabetza intelektualekoa.

Eroski Taldeko aktiboak bidegabe jabetzea eta modu desegokian erabiltzea iruzurra dira.

Eroski Taldeko pertsonak **babestu eta behar bezala erabili behar dituzte** erakundeak haien eskura jartzen dituen **baliabideak eta aktiboak**, eta modu arduratsuan erabili haiek kaltetzea, galtzea, lapurtzea edo desegoki erabiltzea

saihesteko. Eroski Taldearen baliabideak erabili behar dira esleitutako erantzukizun profesionalak betetzeko soilik, erakundeak kontrakoa erabakitzen ez badu.

Horri dagokionez, gogoratu behar da Eroskiko pertsonak ez dituztela inola ere erabiliko erakundeak haien esku jartzen dituen baliabideak –informatikoak barne– helduentzako edo, oro har, iraingarria izan litekeen materiala banatzeko edo eskuratzeko. Era berean, ez dituzte erabiliko erakundearen funts edo txartelak aurrerago aipatutako gaiekin edo beste edozein gairekin zerikusia duten praktika desagokiak edo gizartearen aldetik onartezinak diren jokabideak ordaintzeko.

Eroski Taldearen aktiboak babesteko betebeharrak barnean hartzen ditu erakundearen sortutako informazioa eta ezagutza, bere jabetzakoak nahiz zaintzen dituenak ere. Eroski Taldeko langileek konpromisoa hartzen dute beren betebeharrak profesionalak betetzean eskuratzen duten informazioaren **konfidentzialtasuna mantentzeko eta hura modu diskretuan erabiltzeko**, horri buruzko barne-araudiarekin bat etorriz. Betebeharrak horrek iraungo du Eroski Taldearekin duen lotura profesionala bukatuta egon arren.

Horrela, oro har –eta kontrakoa adierazi ezean–, Eroski Taldeko pertsonak beren betebeharrak profesionalak garatzeko eskura duten informazioa isilpekotzat jo behar da.

Era berean, Eroski Taldeko pertsonak datuen babesari buruz indarrean dagoen legeria bete behar dute.

Azkenik, Eroskiren, Eroski Taldearen eta, oro har, Eroski Taldearen marka eta ikur komertzial desberdinak identitate-ikurrak dira, eta erakundeko pertsonen jokabideak aktibo horiek babestera eta zaintzera bideratuta egon behar du.

HORNITZAILEAK ETA HARTZEKODUNAK

Hornitzaileak eta hartzekodunak hautatzeko eta kontratatze prozesuak

Hornitzaileen, kontratisten, bazkide komertzialen edo kanpoko kolaboratzaileen (aurrerantzean hartzekodunak) hautaketa- eta kontratazio-prozesuetan parte hartzen duten Eroski Taldeko pertsonak **inpartzialtasunez eta objektibotasunez jokatzeko** betebeharrak dute, erakundeak erabakitako hautaketa-irizpideak barneratuz.

Bereziki, erosketen eta horniduraren arloko jarduerak indarrean dagoen araudia modu zorrotzenezan betez gauzatuko dira. Horrez gain, arlo horretan erantzukizunak dituzten pertsonak gogoan izango dute salbuespenik gabe betetzeko betebeharrak dutela Eroski Taldea dagoen merkatuetan lehia askea defendatzeko hornitzaileei eta lehiakideei eragiten dieten merkataritza-harremanei buruzko araudia. Alde horretatik, Eroski Taldeko pertsonak gogoan izango dute ez dagoela baimenduta hornitzaileekin eztabaidatzea Taldeko beste lehiakideei ezarritako baldintzei buruz.

Era berean, Erosketa eta Horniduraren esparruan erantzukizunak dituzten Eroski Taldeko pertsonak behar adinako arretaz jardungo dute babesteko salerosketaren aldetik **sentikorra den informazioa**, erosketa-baldintzei buruzkoa edo hornitzaileekiko harremanei buruzko bestelako elementuena.

Eroski Taldeko administratzaileak eta langileak ezingo dute inola ere –zuzenean nahiz zeharka– egin, eskaini edo jaso onurarik, esku-erakutsirik edo oparirik eskudirutan. Era berean, ezingo dute –zuzenean nahiz zeharka– detailerik, esku-erakutsirik edo

oparirik egin edo jaso, baldin eta halakoek duten balioagatik, ezaugarriengatik edo inguruabarrengatik haiek parte hartzen duten merkataritza- edo lanbide-harremanen garapena arrazoiz alda badezakete.

Opariak eta detaileak erakundearen interes legitimoengatik soilik jaso edo entregatu beharko lirateke, eta, modu lehenetsian, hartzaileak eta emaileak batera gozatu beharko lituzkete. Era berean, jasotako edo emandako opariak eta detaileak noizbehinkakoak izan beharko dute, erregulartasunak hirugarren independente bat haien fede onari buruz zalantza egitera eraman badezake.

Horrez gain, opariak eta detaileak sozialki onargarriak izan beharko lukete; horrela, publikoki ezagunak badira, ez dute deserosotasunik sortuko hartzailearentzat edo emailearentzat. Opari edo detaile bat bere balioari dagokionez zein neurritan onargarria den zehazteko, Eroski Taldeko pertsonak elkarrekikotasun-irizpidea aplikatuko dute. Hartzaileak nahiz edo opari-egileak izan, opari bat onargarria izango da jasotzen duenak itzul dezakeen neurrian.

HIRUGARRENEKIKO TRANSAKZIOAK ETA BEZEROEKIKO HARREMANAK

Integritatea hirugarrenekin egindako transakzioetan. Opariak eta detaileak. Ustelkeria

Eroski Taldeko pertsonak ez dute inola ere **praktika ez-etikorik** erabiliko hirugarrenen borondatean eragina izateko Eroski Taldearentzat edo beren buruarentzat onuraren bat lortzeko helburuarekin. Praktika irregularrak ez dira onargarriak, ezta horietan ari denak Eroski Taldearen onurarako ari dela uste duenean ere. Era berean, Eroski Taldeko pertsonak adi egon beharko dute hirugarrenek erakundearekin duten harremanean etikoak ez diren praktikak erabil ez ditzaten.

Eroski Taldeak **espresuki debekatzen ditu edozein pertsona edo erakunde publiko nahiz pribaturi ordainketak, opariak edo bidegabeko detaileak egitea, negozioak edo bestelako onurak edo abantailak lortzeko edo mantentzeko asmoz.**

Eroski Taldeko administratzaileak eta langileak ezingo dute inola ere –zuzenean nahiz zeharka– egin, eskaini edo jaso onurarik, esku-erakutsirik edo oparirik eskudirutan. Era berean, ezingo dute –zuzenean nahiz zeharka– detaileak, esku-erakutsirik edo oparirik egin edo jaso, baldin eta halakoek duten balioagatik, ezaugarriengatik edo inguruabarrengatik haiek parte hartzen duten merkataritza-, administrazio- edo lanbide-harremanen garapena arrazoiz alda badezakete.

Opariak eta detaileak erakundearen interes legitimoengatik soilik jaso edo entregatu beharko lirateke, eta, modu lehenetsian, hartzaileak eta emaileak batera gozatu beharko lituzkete. Era berean, jasotako edo emandako opariak eta detaileak noizbehinkakoak izan beharko dute, erregulartasunak hirugarren independente bat haien fede onari buruz zalantza egitera eraman badezake.

Horrez gain, opariak eta detaileak sozialki onargarriak izan beharko lukete; horrela, publikoki ezagunak badira, ez dute deserosotasunik sortuko hartzailearentzat edo norentzat. Opari edo detaile bat bere balioari dagokionez zein neurritan onargarria den zehazteko, Eroski Taldeko pertsonak elkarrekikotasun-irizpidea aplikatuko dute. Hartzaileak nahiz edo opari-egileak izan, opari bat onargarria izango da jasotzen duenak itzul dezakeen neurrian.

Nolanahi ere, Eroski Taldeko pertsonak ziurtatu beharko dute egindako opariak eta detaileak proportziozkoak, arrazoizkoak, gardenak eta legítimoak direla, baita erakundeak zehaztutako arauen arabera tratatuak izango direla ere, eta, gainera, bere liburuetan behar bezala monitorizatuko, ebaluatuko eta erregistratuko direla.

Era berean, ez dute egingo **izapideak errazteko edo bizkortzeko ordainketarik**; hau da, ez dute dirua edo baliozko gauzarik entregatuko –horien zenbatekoa edozein dela ere– edozein organo judizialen, administrazio publikoren edo organismo ofizialen aurrean izapide edo jarduketa bat aurrera eramango dela ziurtatzearen edo arintzearen truke.

Horrez gain, higiezinaren edo hirigintzaren arloko jarduerak garatu ahal izango liratekeen hedapen- eta garapen-funtzioetan inplikaturako Eroskiko pertsonak zorrotz eta salbuespenik gabe beteko dituzte eremu horietan aplikatu beharreko araudiaren berezitasunak.

Transakzio irregularrak

Eroski Taldeko pertsonak adi egon beharko dute beraiekin harremanak dituzten pertsonen edo erakundearen integritaterik ezaren zantzuak egon daitezkeen kasuetan.

Bereziki, Eroski Taldeko administratzaileek eta langileek saihestuko dituzte, oro har, **ezohikoak diren eskudiruzko ordainketak**, eramailearentzako txeekeen bidez egindakoak edo aurrez adostutakoez bestelako dibisetan egindakoak.

Halaber, dagozkien kontratuetan aipatzen ez diren hirugarrenei edo hirugarrenek egindako ordainketak saihestu beharko dituzte, baita erakunde edo pertsona jakin batekiko harremanetan ohikoak ez diren kontuetan egindakoak ere, eta arreta bereziarekin berrikusi beharko dituzte dagozkion akordio edo kontratuetan aurreikusi gabeko ordainketak.

Era berean, arretaz jokatu dute paradisu fiskaletako pertsonak, konpainiei, entitateei edo bertan irekitako kontuei egindako ordainketekin eta bazkidea, jabea edo azken onuraduna identifikatu ezin den entitateei egindako ordainketekin.

Hornitzaileen, bezeroen eta lehiakideen izen ona eta interesak errespetatzea. Informazio konfidentziala

Eroski Taldeko administratzaileek eta langileek **merkatuko informazioa edo sektoreko konpainien ingurukoa bilatzea** etikoki egingo da beti, era horretako informazioa babesten duten arauarekin bat etorritik. Eroski Taldeko pertsonak baztertu dituzte bidegabe nahiz beren jabe legítimoek datu horiek mantentzen dituzten konfidentzialtasuna urratuz lortutako lehiakideei buruzko datuak. Bereziki, arreta berezia jarriko dute enpresa-sekreturik ez urratzeko sektoreko beste erakunde batzuetatik etorritako profesionalak sartzen direnean.

Eroski Taldea leialtasunez lehiatuko da merkatuan, eta bere pertsonak konpromisoa hartuko dute beti negozioak ohorez egiteko eta ez parte hartzeko **lehia desleiala** edo *legezko ez-betetzea* dakarten jardueretan, lehiakideei buruzko informazio engainagarria, okerra edo asmo txarrekoa barne. Era berean, bezero, hornitzaile edo lehiakideekiko abantaila desegokiak lortzera eramaten duen jokabide engainagarri, iruzurrezko edo gaizto oro saihestuko dute. Bereziki, arreta handiena jarriko dute kontratuetan ezarritako baldintzak betetzen direla eta prozeduren funtzionamendu egokia ziurtatzeko, bezeroei, hornitzaileei edo lehiakideei tratu desegokia ematea saihesteko asmoz.

Beren jarduera komertzialak garatzean, Eroski Taldeko pertsonak estandar objektiboetan oinarrituta sustatuko dituzte erakundeko produktuak eta zerbitzuak, lehiakideen izena zikindu gabe edo haien produktuen baldintzak edo ezaugarriak faltsutu gabe. Alde horretatik, gogoan izan behar da erakundeko administratzaile eta langile guztiak behartuta daudela bezeroari begira ezarritako konpromiso komertzialetan ezarritakoa betetzera.

Finantza-informazioaren barne-kontrola

Informazioa faltsutzea, manipulatzeko edo informazio faltsua nahita erabiltzea iruzurra da.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren gomendioetan erakunde kotizatueta finantza-informazioari buruzko barne-kontrolaz gomendatutakoaren ildotik, Eroski Taldeak bere gain hartzen ditu, jokabide-printzipio gisa, **finantza-informazioaren gardentasuna eta fidagarritasuna** eta arlo horretan aplikatu beharreko araudia betetzea.

Erakundearen transakzio, egitate eta gertakari guztiak argi eta zehatz islatu beharko dira –eta aplikatzeko den araudiaren arabera– erakundeko erregistroetan. Era berean, erregistroek erakundearen transakzio, egitate eta gertakari guztiak islatu beharko dituzte.

Administratzaileek eta langileek informazio hori modu egiazkoan, osorik eta ulergarritasunez eman beharko dute. Inoiz ere ez dute emango jakinaren gainean informazio okerra edo zehaztugabea, hura jasotzen duenari nahasmena sor diezaiokeena.

Eroski Taldeak argi eta zehaztasunez islatuko ditu erakundearen erregistroetan egindako transakzioak, egitateak eta gertakariak, eta arreta berezia jarriko du erakundearen eta kontrolatutako sozietateen sistemetan sartutako finantza-informazioaren fidagarritasunari dagokionez. Horiek dagokion datan islatuko dituzte eskubideak eta betebeharrak, dagozkien aktibo eta pasiboen bidez eta aplikatu beharreko araudiaren arabera.

Era berean, EROSKI Koop.E.ko Kontseilu Errektoreak eta, bere izenean, Auditoria eta Betetze Batzordeak, konpromisoa hartzen dute Finantza Informazioari buruzko Barne Kontrolerako Sistemaren eraginkortasuna **aldian-aldian gainbegiratuko** dela bermatzeko.

Nolanahi ere, erakundeko **bozeramaile baimenduek** bakarrik egin ahal izango dituzte, publikoki, Eroski Taldearen jardueri edo emaitzei buruzko iruzkinak.

Hirugarrenen jabetza industrial edo intelektualaren errespetatzea

Eroski Taldean salgai dauden produktu guztiek ezarritako kontrolei jarraitu behar diete, jabetza industrialarekin lotutako arriskuak saihesteko, besteak beste. Ildo horretan, Eroski Taldeko pertsonak jakin behar dute arlo horretako erabakiak trazagarriak, justifikagarriak eta egiaztagarriak izan behar dutela hirugarren batzuek edo agintariak berrikusiz gero. Azken batean, ezarritako arau eta prozesuak jarraitu direla frogatzeko gai izan behar dute une oro.

EROSKI TALDEKO PERTSONEN ARTEAN ETA HAIEKIN

Legezko enplegua, lan-baldintza bidezkoak eta leialtasuna lan-jardunean

Eroski Taldean, pertsonen kudeaketak eta langileen arteko harremanek **pertsonen duintasuna eta eskubideak zorroztasunez** errespetatzean dute beti abiapuntua.

Horrela, arduraz jardungo da langile atzerritarrak legez kanpo enplega ez daitezen, bai erakundean bertan, bai haren hornidura-katean zehar hornitzaileen, kontratisten, bazkide komertzialen eta kanpoko kolaboratzaileen artean.

Era berean, Eroski Taldeko administratzaileak eta langileak adi egongo dira langileak erakunderako modu irregularrean lan egin dezaketen kasuak edo indarrean dauden lan-araudi eta kontratuak betetzen ez diren kasuak gerta ez daitezen.

Eroski Taldeko pertsonak zainduko dute kontratistek eta hornitzaileek –eta, oro har, enpresa laguntzaileek– erakundearen irudia eta ospea errespetatzen dituztela eta hautaketa- eta kontratazio-prozesuetan behar ez bezalako eraginak saihestuko dituztela.

Tratu ona eta lankidetzia

Eroski Taldeko pertsonak errespetuz, profesionaltasunez eta adeitasunez tratatu behar dute elkar, lan-giro atsegina, atsegingarria eta segurua sortzeko, pertsonak beren onena eman dezaten eta **giro sozial eta errespetuzko bizikidetzia egokia** lortzen laguntzeko asmoz. Era berean, Eroskiko pertsonen eta bere hornitzaileen, kontratisten, bazkide komertzialen edo kanpoko kolaboratzaileen arteko harremanak errespetuan eta lankidetzan oinarrituta egongo dira.

Eroski Taldean lehentasuna ematen zaio kolektiboari banakakoaren aurretik. Lankidetzia eta talde-lana ezinbesteko eskakizunak dira Eroski Taldeak bere helburuak lor ditzan eta erakundeaosatzen duten gaitasunak, baliabideak eta ezagutza-, trebetasun- eta esperientzia-aniztasuna ahalik eta gehien aprobetxatu ditzan. Erakundeak, beraz, **lankidetzia eta talde-lana** bultzatu, erraztu eta **sustatzen** ditu, kontuan hartu gabe jarduera zein eremu funtzionaletan egiten den.

Pertsona guztiek lankidetzia-espirtua erakutsi behar dute, eta behar duenaren eskura jarri behar dituzte beren ezagutzak, trebetasunak eta talentua, horrela erakundearen helburu eta interes orokorrak lortzen laguntzeko. Era berean, Eroski Taldeko pertsonak parte hartu beharko dute deituak izan diren ekitaldietan, eta izendatuak izan diren gizarte- edo ordezkaritza-karguak arduraz bete beharko dituzte.

Era berean, Eroski Taldeko pertsonak aplikagarriak diren lan-araudiak betetzen dituzte, eta efizientziaz lan egiten dute, ahalik eta gehien eta Eroski Taldearen mesedetan aprobetxatuz erakundeak haien eskura jartzen dituen denbora eta baliabideak.

Aukera-berdintasuna eta merezimenduetan oinarritutako garapen profesionala

Eroski Taldeko administratzaileak eta langileak **ez dute onartzen** generoan, arrazan, sexu-orientazioan, erlijio-sinesmenetan, iritzi politikoetan, nazionalitatean, gizarte-jatorrian, desgaitasunean edo beste edozein ezaugarritan oinarritutako **diskriminazioa**.

Erakundeko hautaketa- eta sustapen-erabakiak merezimenduan eta izaera objektibo eta gardeneko inguruabarretan eta balorazioetan oinarritzen dira. Garapen

eta aurrerapen profesionalerako erabilitako metodologiak eta prozedurak ezagutuko dituzte langileek.

Eroski Taldeak konpromisoa hartzen du bitartekoak jartzeko **bere pertsonen ikaskuntzan eta prestakuntzan** eta haien ezagutzak eta gaitasunak eguneratzen laguntzeko, haien garapen profesionala sustatzeko eta bezeroen, kontsumitzaileen eta gizartearen alde egiten duten balio-ekarpena maximizatzeko. Bestalde, Eroski Taldeko pertsonak konpromisoa hartzen dute Eroski Taldeak ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak hobetzeko eskura jartzen dizkien bitartekoak aprobetxatzeko, hobekuntza ekonomikoak lortzeko, kargu sozialak edo profesionalak behar bezala betetzeko eta gizaki gisa aurrera egiteko aukera emango dietenak.

Aginte-abusua

Eroski Taldeko pertsonak aginte-abusua eta edozein motatako jazarpena –fisikoa, psikologikoa nahiz morala– saihesten eta baztertzen dute espresuki, bai eta pertsonentzat lan-ingurune larderiak, iraingarri edo erasokorra sor dezakeen beste edozein jokabide ere.

Laneko osasuna eta segurtasuna

Segurtasunari eta osasunari dagokienez, Eroski Taldearen konpromisoaren abiapuntua da jarduten duen ingurune guztietan aplikatzekoa den araudia zorrotz betetzea, langileei **lan-ingurune osasungarria eta segurua** eskaintzeko. Era berean, erakundeak etengabe hobetuko ditu laneko arriskuen prebentziorako eta laneko osasuna sustatzeko neurriak bere jarduera garatzen duen leku bakoitzean.

Bestalde, erakundeak konpromisoa hartzen du langileei behar dituzten baliabideak eta ezagutza emateko, beren funtzioak segurtasunez eta ingurune osasungarrian bete ahal izan ditzaten.

Eroski Taldeak, era berean, segurtasun- eta osasun-arloan praktika aurreratuak egitea sustatzen eta bultzatzen du hornitzaileen, kontratisten, bazkide komertzialen edo kanpoko kolaboratzaileen artean, eta, oro har, enpresa laguntzaileen artean.

INGURUMENA ETA GIZARTEA

Ingurumen-konpromisoa

Eroski Taldeak bere ingurumen-konpromisoari aurre egiten dio bere jarduketan eremu guztietan aplikatu beharreko legeria zorrotzasunez betez. Erakundeak **ingurumena ahalik eta gehien errespetatuz garatzen ditu bere jarduerak, eta minimizatuz** batzuetan sor ditzakeen **efektu negatiboak**.

Horretarako, jardunbide egokienak ezartzen ditu, eta bere langileen artean ingurumena zaintzeko behar den prestakuntza sustatzen du. Hornitzaileekin, kontratistekin, bazkide komertzialekin edo kanpoko kolaboratzaileekin dituen harremanetan ere printzipio horiek transmitituko ditu; kasu bakoitzean aplikatu

beharreko ingurumen-prozedurak eta -eskakizunak betetzeko eskatuko du; eta horiek behar bezala betetzen direla ziurtatzeko bitartekoak jarriko ditu.

Ildo horretan, erakundeak konpromisoa hartzen du zuzentzeko detekta daitezkeen eta ingurumenarekiko desegokiak diren edo inguruneke zaintzarekin konprometituta ez dauden jokabideak, batez ere **hondakinen tratamendu egokiari** dagokionez.

Erakundeak etengabeko ahalegina egiten du bere jardueren ingurumen-inpaktua identifikatzeko, karakterizatzeko eta minimizatzeko, eta efizientziaren, kontsumo arduratsuaren eta natura-ingurunearen babesaren aldeko apustua egiten du. Erakundeko pertsona guztiek partekatzen dute erakundearen ingurumen-konpromiso hori.

Jardueraren garapen jasangarria eta gizartearekiko konpromisoa

EROSKI Koop.E., Eroski Taldearen sozietate matrizea, kontsumo-kooperatiba da, eta, hala, sinesten du **herritarrari itzuli behar zaizkiola bezero gisa kooperatiban sortzen lagundu duen mozkinen zati bat**, kontsumo-jarduera eta osasunean eta natura-ingurunean duen eragina hobetuz eta kooperatibaren nortasunarekin gehien identifikatutako gizarte-ekimenei lagunduz.

Eroski Taldearen gizartearekiko konpromisoa honako jarduera hauetan gauzatzen da: kontsumitzailearentzako prestakuntza- eta informazio-jarduerak, babesletza, mezenasgoa eta gizarte-ekintza (erakundeak egindakoak edo gizarte-erakundeen laguntzaren bidez bideratuak). Dohaintza bidez egiten diren jarduerak beharrezkoak diren baimenak izango dituzte. Ezin izango da inoiz dohaintzarik egin ezein alderdi politikoren edo haren ordezkarien alde, legeria aplikagarrian berariaz aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Era berean, erakundeak ospe zuzena duten eta esleitutako baliabideen administrazio ona froga dezaketen erakundeei bakarrik emango die laguntza. Bai kooperatiba-funtsen erabilerak eta bai –hala badagokio– egiten diren dohaintzak zehatz-mehatz hala jasota geratuko dira erakundearen erregistroetan.

NOLA LAGUNDU BETETZEN

5. LAGUNTZA ETA INFORMAZIOA

Jokabide Kode Korporatiboak Eroski Taldea osatzen duten pertsonengandik espero den portaerarako jarraibideak jasotzen ditu.

Zalantzarik izanez gero, administratzaileek eta langileek laguntza jaso ahal izango dute beren nagusi hierarkikoaren, pertsonal-buruaren, Araudia Betetzeko Batzordearen, Betetze Bulegoaren edo Auditoria eta Betetze Batzordearen eskutik.

Kode honetan jasotako gaiei buruzko aholkularitza berezia behar badute, gai horietan adituak diren arlo funtzionaltara eta erakundeko sailetara ere jo dezakete.

Era berean, ikus ditzaketen jokabide irregularrak jakinarazi ahal izango dituzte Kode honen 6. apartatuan deskribatutako mekanismoen bitartez.

6. JOKABIDE IRREGULARREN JAKINARAZPENA

Eroski Taldeko pertsona guztiek Jokabide Kodea betetzeko betebeharra dute, baita Kodea betetzen laguntzekoa ere, zalantzak kontsultatuz eta, dagokionean, detekta ditzaketen jokabide irregularrak jakinaraziz.

Era berean, Jokabide Kode honek eragindako pertsona guztiengandik espero da ezarritako eta behean aipatzen diren kanalen bidez erakundeari jakinaraztea Kode honetan jasotako jokabide-printzipioen edozein irregulartasun edo ez-betetze, baldin eta horien berri izan badute. Espero den komunikatze-jokabide hori, halaber, hirugarrenen eta, bereziki, hornitzaileen, kontratisten edo kanpoko beste bazkide komertzial edo kolaboratzaileen jokabide irregularrak antzeman daitezkeen kasuetara ere hedatu nahi da.

Eroski Taldeak behar adina kanal ditu bere administratzaile eta langile guztiei aukera emateko erakundeari fede onez, konfidentziasunez eta errepresalien beldurrik gabe Kodean eta barneko jokabide-arauetan jasotako gaietan jokabide irregularren berri emateko.

Europako zuzentarauekin bat etorritik, salatzailearen babesa ere indartu nahi izan da, salaketa anonimoak oro har onartuz. Eta, era horretan, babes handiagoa eman arau-hausteen komunikaziorako Salaketa Kanala modu legitimoan erabiltzen dutenei. Salatzaileen kaltegabetasuna bermatzea funtsezko printzipioa da Kanalaren diseinuan eta salaketen tratamenduan, eta Eroski Taldeak horrekin berresten du erakundearen barruan salatzaileen aurkako errepresalia-mota guztiak galarazteko konpromisoa.

Era berean, Eroski Taldeko pertsonak zalantzak argitu edo hobekuntzak proposa ditzakete erakundeak Kodean kontuan hartutako arloetan dituen barne-kontrolen sistemetan edo jokabide irregularrak gertatzeko arrisku handia duten arloak edo jokabideak adierazi.

Administratzaileek eta langileek Jokabide Kode Korporatiboarekin lotutako gaiei buruzko komunikazioak bidaliko dizkiote, modu anonimoan nahiz izendunean eta fede onez eta errepresaliei beldurrik gabe, Araudia Betetzeko Batzordeari, Betetze Bulegoaren bitartez, bide hauek erabiliz:

- a) Online inprimakia, Nexo Eroskin eta Prisman eskuragarri.
- b) Telefono-deia: 94.621.12.34. Gernet 81234
- c) Horrez gain, eta nolanahi ere, gorabeherak salatu ahal izango dira lerro hierarkikoaren, pertsonal-buruaren, Araudia Betetzeko Batzordearen (Betetze Bulegoan) eta Auditoria eta Betetze Batzordearen bidez. Salatutako gorabehera guztiak Araudia Betetzeko Batzordeari helaraziko zaizkio, Betetze Bulegoaren bidez, erregelamendu bidez izapidetu ditzan.

Zalantzarik izanez gero edo jokabide irregularren bat hautemanetz gero, langileek jo ahal izango dute aurreko c) puntuan identifikatutako pertsonengana, beren egitekoen artean baitute Jokabide Kodean eta Kodearen oinarri diren arauetan ezarritako jokabide-printzipioak zabaltzeko, ezagutu eta betetzen direla zaintzea.

Jasotako jakinarazpen guztiak konfidentziasunez ebaluatu eta tratatuko dira. Esku-hartzaileen datuak agintaritzaren administratibo edo judizialek salatutako egitatea dela-eta jarduketak hasten dituztenean eta agintari horiek eskatzen dituzten heinean bakarrik komunikatu ahal izango dira, bai eta, Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa betetzeko; eta, hala badagokio, ikerketaren ondorioz hasitako edozein ikerketa edo prozedura judizialean inplikaturako pertsonen.

Kasu horretan, Araudia Betetzeko Batzordeak –Betetze Bulegoaren bidez– aztertuko du kasu bakoitzean dagokion ikerketa hasteko jakinarazlearen datuak komunikatzea beharrezkoa den ala ez, eta aldez aurretik harekin harremanetan jarri ahal izango da erabaki hori hartu aurretik.

Nolanahi ere, Eroski Taldeak ez du onartuko jokabide irregularrak komunikatzeko ezarritako prozedurak erabiltzen dituzten pertsonen aurkako errepresaliarik.

Jokabide Kodearekin zerikusia duten gaiak kudeatzeaz arduratzen diren Eroski Taldeko pertsona guztiek arreta handiena jarriko dute kontsulta- eta jakinarazpen-prozedurak sortutako informazioaren konfidentziasuna gordetzeko eta pertsonen ohorerako eskubidea zaintzeko.

Aldian-aldian, Araudia Betetzeko Batzordeak, Betetze Bulegoaren bidez, bere erantzulearen rolean, aldian jasotako auzien zerrenda osoa aurkeztuko dio Auditoria eta Betetze Batzordeari, eta eskatzen zaizkion jarraipen-txostenak argitaratuko ditu, betiere horien edukiaren konfidentziasuna zainduz.

Araudia Betetzeko Batzordeak jasotako jakinarazpenak Betetze Bulegoko arduradunaren bitartez bidaliko eta izapidetuko dira, eta hark egokitzat jotzen dituen erakundeko arlo edo sailen lankidetzak eskatu ahal izango du, bai eta baliabide gehigarriak eskatu edo ikerketa aditu batek egiteko eskatu ere, baldin eta, egitateen inguruabarrak direla-eta, ikerketak bere gaitasunak edo baliabideak gaintitzen baditu. Jakinarazitako irregulartasunen ebazpena eta balizko zehapenak horretarako ezarritako protokolo espezifikoen eta aplikatu beharreko barne- edo kanpo-araudiaren arabera ebatziko dira. Araudia Betetzeko Batzordeak, Betetze Bulegoaren bidez, Salaketa Kanala erabili duten jakinarazleei helaraziko dizkie ikerketaren hasierari eta emaitzei buruzko erantzuna, bai eta erakundeak hartutako neurriaren berri ere.

Araudia Betetzeko Batzordearen betebeharra izango da kontsulta eta jakinarazpen horien tratamenduari eta ebazpenari buruz egunean egotea eta Auditoria eta Betetze Batzordeari ematea haien izapidetzearen berri. Auditoria eta Betetze Batzordeak izapidetze horietan emandako erantzuna balidatzeko betebeharra du.

Araudia Betetzeko Batzordeak uste badu komunikatu zaizkion irregulartasunak "garrantzi handikoak izan daitezkeen irregulartasunak, bereziki finantza- eta kontabilitate-izaerakoak" izan daitezkeela, erabaki ahal izango du Eroski Koop.E.ren Auditoria eta Betetze Batzordeari zuzenean helaraztea, organo horrek nola konpondu erabaki dezan.

7. JOKABIDE-KODE KORPORATIBOAREN BETETZE-PROGRAMA

Eroski Taldearen iritziz, etikaren eta integritatearen arloan behar adinako arreta izatea erakundean garatzen diren jardura guztiei dagokie, haien baitan ager daitezkeen eta barne- eta kanpo-araudiaren aurkakoak diren jokabide irregularrak prebenitzeko, detektatzeko eta, hala badagokio, ezabatzeko.

Eroski Taldearen ustez, etikaren eta integritatearen arloan behar adinako arretaz jarduteak hainbat elementu hartzen ditu barnean Kode honetan jasotako printzipioekin lotutako Betetze Programa osatzen dutenak:

Arrisku-eremuetan arreta jartzea

Kodeak jokabide-jarraibideak eskaintzen ditu Eroski Koop.E.ko Kontseilu Errektorearen iritziz garrantzi handiagoa duten etika eta integritatearen arloko gaietan, erakundearen, negozioen eta operatzen duen merkatuen ezaugarriak kontuan hartuta.

Erantzukizunak esleitzea eta konpromisoak ezartzea

Eroski Koop.E.ko Kontseilu Errektorea da azken batean erakundearen barne-arauak betetzen direla zaintzeko eta Kodea benetan betetzen dela gainbegiratzeko organo erantzulea. Erakundeko langileen artean Kodea ezagutzearekin, ulertzearekin eta betetzearekin zerikusia duten kudeaketa-erantzukizunak Eroski Koop.E.ko Auditoria eta Betetze Batzordean eskuordetzen dira, eta, horretarako, batzordeak Araudia Betetzeko Batzorde bat du erakundearen barruan.

Araudia Betetzeko Batzordeari Jokabide Kode Korporatiboaren esparruan esleitutako funtzioak dira Betetzeko Bulegoaren bidez jasotzea, bideratzea, jarraipena egitea, behar bezala informatzea eta dokumentatzea honako hauek:

- a) Administrazioaileen eta langileen proposamenak Jokabide Kodean egin daitezkeen aldaketan eta hobekuntzen inguruan.
- b) Administrazioaileen eta langileen zalantza eta kontsultak Jokabide Kodean jasotako jokabide-printzipioen aplikazioari edo interpretazio praktikoari buruz.
- c) Beren iritzia eta ulertze leialaren arabera, Eroskiren Jokabide Kodean xedatutakoaren aurkakoak edo desegokiak diren jokabideei buruzko jakinarazpenak.
- d) Bere langileen eta hornitzaileen, kontratisten eta bezeroen artean Jokabide Kodea hedatzea, hala badagokio.
- e) Eroskiko administrazioaileen eta langileen kontsultarako eta jakinarazpenerako ezarritako komunikazio-kanalek behar bezala funtzionatzen dutela zaintzea.
- f) Eroskiren Jokabide Kode Korporatiboaren kontsulta- eta jakinarazpen-prozedura erabiltzen dutenen aurkako errepresaliarik ez dagoela zaintzea.
- g) Kontsulta- eta jakinarazpen-prozeduraren bidez sortutako informazioaren konfidentzialtasuna zaintzea.

Bestalde, Jokabide Kodearen esparruan, Auditoria eta Betetze Batzordeak honako funtzio hauek ditu esleituta:

- a) Jokabide irregularrak komunikatzeko jakinarazpen- eta kontsulta-prozedurak behar bezala funtzionatzen duela gainbegiratzea eta ziurtatzea.
- b) Kodean jasotako gaien arloko irregulartasunei buruz jasotako jakinarazpenen izapideak gainbegiratzea eta bermatzea, haien ebazpena gainbegiratzea eta Kode honen aplikazioak edo interpretazioak eragin ditzakeen zalantza argitzea.
- c) Erakundeak betetze-arloan beharrezkoak dituen funtzioak daudela ziurtatzea. Horretarako, Araudia Betetzeko Batzorde bat izendatu da, eta batzorde horrek, Betetze Bulegoaren bidez, bere gain hartuko ditu arlo funtzionalen eta Auditoria eta Betetze Batzordearen arteko koordinazio-funtzioak, eta horrela ziurtatuko du haien funtzionamendu ona.
- d) Kodea erakundean ezagutzea eta ulertzea sustatzea, jardunbide egokiak identifikatuz eta etengabeko hobekuntza sustatuz.
- e) Eroski Koop.E.ko Kontseilu Errektoreari Kodearen betetze-mailari buruzko informazioa aldiro-aldiro ematea, beharrezkotzat jotzen dituen gomendioak proposatuz.

Pertsonek konpromisoak ezagutzen eta ulertzen dituztela ziurtatzea

Eroski Taldeak behar diren baliabideak bideratuko ditu Kode hau eta Kodeak oinarri dituen arauak bere administrazioaile eta langile guztiek ezagutzen eta ulertzen dituztela ziurtatzeko. Era berean, Eroski Taldeak konpromisoa hartzen du bitartekoak jartzeko erakundeko pertsonek erantzukizun-esparru bakoitzeko barne- eta kanpo-araudi garrantzitsuena ezagutu eta uler dezaten.

Horrez gain, Taldeko enpresek Kode hau emango diete sartu berriei.

Eroski Koop.E.ko Auditoria eta Betetze Batzordeak, bestalde, Jokabide Kodearen arlo desberdinetarako alderdi garrantzitsuenen komunikazio-jarduketa erregularra gainbegiratu du, eta, aldian-aldian, erakundeko pertsonak Kodean ezarritakoa ezagutu, ulertu eta betetzen dela berrestea eska lezake.

Gainbegiratzea eta monitorizatzea

Eroski Koop.E.ko Auditoria eta Betetze Batzordeak Jokabide Kodea ezagutu, ulertu eta betetzen dela zaintzeko eta Eroski Taldeak ezarritako babes-mekanismoen funtzionamendu egokia bermatzeko ardura du. Bere funtzioen artean dago, halaber, Kodea erakundean betetzen dela monitorizatzea, eta horren berri aldian-aldian ematea Eroski Koop.E.ko Kontseilu Errektoreari.

Betetzen dela zaintzea

Eroski Taldeak komunikazio-, jakinarazpen- eta kontsulta-bitarteko batzuk ezarri ditu, Araudia Betetzeko Batzordearen bitartez eta Auditoria eta Betetze Batzordeak gainbegiratuta, erakundearen administratzaileei eta langileei, fede onez eta errepresalietatik babestuta, kode honetan aurreikusitako gaietan praktika irregularrak komunikatzeko aukera ematen dietenak. Erakundeko langile guztiak behartuta daude antzeman ditzaketen Kodearen aurkako jokabideen berri ematera.

Jardunbide desegokiak zuzentzea eta hobetzea

Eroski Taldeak zero tolerantziaren printzipioa aplikatzen du jardunbide desegokiak aurrean Kode honetan jasotako gaietan. Araudia Betetzeko Batzordeak aztertuko ditu ez-betetzeak, eta Auditoria eta Betetze Batzordeari aldian-aldian horien berri emango zaio, aplikatu beharreko barne- eta kanpo-araudiaren arabera eta jakinarazpenak eta kontsultak ebazteko ezarritako prozeduraren arabera. Auditoria eta Betetze Batzordeak zainduko du Kode hau behar bezala aplikatzen dela eta ezarritako prozedura behar bezala betetzen dela.

Eroski Taldeak konpromisoa hartzen du, beharrezkoa izanez gero, bere Jokabide Kodean jasotako konpromisoak eraginkortasunez ezartzeko beharrezkoa den barne-araudia garatzeko.

Eroski Taldeak argitara eman ahal izango ditu Kode honen edukiak eta printzipioak hornitzaileen eta kontratisten artean.

8. JOKABIDE-KODE KORPORATIBOAREN INDARRALDIA

Eroski Taldearen Jokabide Kode Korporatiboa Eroski Koop.E.ko Kontseilu Errektoreak onartzen duenean sartuko da indarrean, eta komunikazio masiboa egiten zaionetik aurrera aplikatuko zaie eragindakoei.

Kodea berrikusi eta eguneratuko da Kontseilu Errektoreak adierazitakoaren arabera, bere ekimenez nahiz Auditoria eta Betetze Batzordeak edo Araudia Betetzeko Batzordeak proposatuta. Balizko berrikuspenak eta eguneratzeak Eroski Taldeak etikaren eta gobernu onaren arloan hartutako konpromisoei eta araudi-esparrutik sortutako betebeharrak berriei atxikiko zaizkie.

